

Urteko jardunaldia

Petronorko presidentearen hitzak

Emiliano López Atxurra

San Mames, 2016ko azaroaren 22a

Egunon guztioi:

Hasi baino lehen, publikoki eskertu nahi dizuet –askotan egin diet talde zehatzei— uztailaren 29an erakutsitako esfortzu eta eskuzabaltasunagatik, Iberdrolak argindarraren hornidura eten zuenean, planta bat-batean gelditu baitzen. Mila esker. Eskerrik asko zuen engaiamendu, kemen eta arduragatik, une hain larrian. Orduan berretsi egin nuen Petronorrek giza talde handia daukala eta etorkizuna konkistatzeko gai garela. Mila esker eta ikas dezagun uztailaren 29ko ikasbidetik ere.

Orain, zuen epidermisan sartu eta Petronor zeuen gorputza, gorputz bizia, pertsonak eratutakoa dela senti dezazuen saiatu nahi dut, teknologia helburu baterako balio duen bitarteko bat dela. Ondo egindako lana. Hortxe dago koska. Pertsonak, haien prestakuntza, haien lan ona.

Eta horregatik dakart gogora kanta hau, *Perfect Day*, formatu honetan, azpimarratu nahi dudana irudikatzen duelako. Melodia berak hainbat interpretazio eduki ditzake eta hura aberasteko desberdina partekatutako helburu komun batean uztartzen jakitean datza.

Ildo beretik, trainerua esfortzu komunaren ikurra da, zia boga koordinatuta egiteko gai izan behar dugu denborarik ez galtzeko eta etorkizuna irabazteko. Entrenamenduak esan nahi du ezer ez dela ausazkoa, eta prestakuntza partida jokatu eta irabazteko ezinbesteko atariko da. Aniztasuna proiektua aberasteko modua da, ez hura neutralizatzea. Proiektu partekatu batean aniztasunak indar-ideia komun bat eta bideoko kanta bezalako lan eder bat egiteko behar beste diziplina behar ditu. Eta entzun duzuen kantaren indar-ideia hau da: **EREITEN DUGUNA BILTZEN DUGU.**

Gure lan ederra Petronorren etorkizuna da. Ez dago etorkizunik oraina eraikitzen ez badugu. Eta gure erronka Petronor eraginkor eta jasangarria egitea da. Horiek dira Antonio Brufau Repsolko presidenteak duela gutxi Bruselako hitzaldian, Batasuneko energiaren arloko arduradunen aurrean, adierazi zituen indar-ideia biak. **ERAGINKORTASUNA eta JASANGARRITASUNA.** Nire egiten ditut eta zeuek ere zuen egitea nahi nuke. Petronorren bizkarrezurra dira.

Gure etorkizuna gertatzen ari diren aldaketa teknologiko sakonak eta energiaren negozioan, zehazkiago gurean, duten eragina ulertzeko dugun gaitasunaren mende baino ez dago.

Ez diet helduko gertatzen ari diren aldaketei eta iaz azaldu nuen testuinguru globalari. Gauza bakarra gomendatu baino ez dizuet nahi: ego zaitezke adi maiztasun handiz aldaketei buruz agertzen diren informazioei, Fordeko presidentek badio orain autoak fabrikatzen dituen konpainia bat izan ez ezik haren negozioa mugikortasuna dela, ez pentsa gurekin zerikusirik ez duen gaia denik. Volkswagen kontua ikusten duzuenean, ez begiratu inoren kontua balitz bezala. General Electric Baker Hugues erostear dagoenean eta Oil&Gas negozioaren muinean sartzan denean, pentsa ezazue aldaketa sakoneko prozesu batean sartzan ari dela. Ibilgailu elektrikoa merkatuan barneratzea erraztuko duten baterien eta karga azkarren garapenei lotutako albisteak agertzen direnean, ez ikusi inoren negozio txikia balitz bezala... etab.

Gai horiek denak gureak dira eta bizkortu eta adimenez bilakatu behar dela dioskuten aldarriak dira. Aldarri horiek ez digute krisia adierazten, oil&gasaren eta gure negozioaren kritika erraza egiteko. Ona da gure negozioa “kritikatzea”, baina *kritika* hitzaren benetako zentzuan, zeina *crisis* hitzetik baitator, eta **ANALISIA** ezan nahi baitu.

Negoziaren analisi horrek etorkizuna orainetik eraikitza garrantzua zuzenean. Ez dago etorkizunik etengabeko berrikuntzan eta eraginkortasunean oinarritutako orainik gabe. Eta horretarako da jardunaldi hau: antolakuntzan berrikuntza barneratzeko, etorkizuna eraikitza. Orain erein ezean, etorkizunean ez dugu ezer bilduko. Eta belaunaldien arteko erantzukizuna daukagu guk. Erantzukizun hori hauxe da, hain zuzen ere: jasotzen duguna zaindu, hobetu eta etorriko diren belaunaldiei aurrekoek utzi ziguten aberastasun bera uztea, eguneratuta. Gure inguruan adibide gehiegik erakusten digute nola, zilborrari begira egonda, sinetsita ezer gertatzen ez zela, baratze industrialak zen ezkerrean basamortu industrial bihurtarazi zuten, azkenean.

Berritzea ez da etorkizunari asmo onetatik eta negoziotik at begiratzea. Berritzea ez da energiaren etorkizun batekin –2030 edo 2050ean—amets egitea atzerako ispiluaren ikuspegia protagonista duen orain batetik. Ezin dugu berritu orainaren erosotasunean finkatutako buruko horma bati eusten badiogu, energiaren mundu zaharraren forma eta funts berberetan geratzen bagara. Teknologia zorabiozko abiadura ari da bilakatzen, eta merkatuan izango duen eragina disruptiboa izango da. Alegia, etengabeko hobekuntza, bai. Baina jauzi esponentziala ere bai.

Gure negozioaren jasagarritasuna gure mende dago. Eskura dagoen teknologiarik onena erabiltzeko dugun gaitasunaren mende. Ingurumenari buruzko arauen funtsezko kontzeptua da hori eta jasagarritasuna teknologiaren bilakaerari lotuta dagoela esan nahi du. Alerta teknologiko etengabea esan nahi du horrek, baita kudeaketan eta antolakuntzan eskura dagoen teknologiarik onena ere. Testuinguru horretan, “beti egin da horrela” lelo ezagunak ez dauka ez tokirik ez etorkizunik.

Eskura dauden teknologia onenen erabilera jardunbiderik onenei dago lotuta, eta prestakuntza etengabea dakar horrek. Hura gabe ezinezkoa da aurrera egitea, ingurumenari buruz ditugun betebeharrak ez ezin, gure negozioaren jasangarritasunean ere bai. Eta hor kokatzen dut beste indar-idea, **ERAGINKORTASUNA**.

Gure negozioari osotasunean begiratu behar zaio: produktuak, prozesuek eta merkatuak osatuta. Ikuspegi global hori ezean ez dago eraginkortasunik. Berrikuntza ikuspegi global horretan marjina hobetzeko etengabeko doikuntza prozesuak egingarri egitea da. Eta dauden teknologiarik onenak ditugu eskura. Geuregana ditzagun. Abantaila bat daukagu: ekoizpen-prozesuei dagokienez gu baino aurreratuago dauden kudeaketa sektore eta teknologietatik ikastea eta atzematea. Berritzen dugunean, esaterako hornitzaileetan, ez dugu Mediterraneo aurkitzen. Aurkituta dago hori. Automobilgintzak izan dituen aurrerapenak erabil ditzagun, geuregana ditzagun, haiek hobetuz. General Electric sortzen ari den olatua balia dezagun. Gure hornitzaileak ez dira prezio kontu hutsa, gure barne egituraren kontua da.

Eraginkortasuna eskura dauden teknologiarik onenen erabilera adimentsua egitea ere bada, gure gaitasunei balioa eman eta gure ekoizpen-prozesuari eraginkortasunik handiena emateko. Teknologiarik onenen erabilera arduratsua, egungo eta etorkizuneko iraultza teknologikoaren aktiboak gure negozio energetikoaren efikazia eta eraginkortasunaren alde erabiltzeko. Merkatura egokitutako konpainia energetikoa izan behar dugu.

Orain jardunaldi honetako gai nagusiak birpasatuko ditugu, berrikuntza ardatz hartuta. María Victoria Zingoni Downstreameko zuzendari nagusiaren hitz itxaropentsuak entzungo dituzue. Eskerrona baino ez daukat berarentzat Petronorri emandako etengabeko laguntzagatik eta berrikuntza dakarten eraginkortasuna eta jasangarritasuna etengabe eskatzeagatik. Interes berezia daukat, eta barkatuko didate beste hizlariak, Andreu kontseilari delegatuaren hitzaldia eta haren amaiera grafikoa entzun ditzazuen. Berrikuntza zainean sartu behar da Petronorren odol-fluxuan.

Ez nuke jardunaldiaren aurkezpen hau amaitu nahi findegiaren auzokoak eta gazteak aipatu gabe.

Petronorrek ogi usaina dauka, Andreuk behin eta berriz dioenez. Hori egia izanik, egia da, halaber, Petronorren hiriko ezaugarriak direla-eta auzoko onak eta oso arduratsuak izan behar dugula. Horri begira ere jarri behar dugu gure esfortzua. Demagogia interesatuaren aurrean, ingurumeneko betekizunak abagune estrategikoa dira guretzat, eraginkortasun eta efikaziaren indar-idea horretan. Petronorren dihardugun guztiok behartzen gaitu horrek. Prestakuntza, ardura, lanerako zorrotasuna eta jardunbide egokiak, azken batean, botikarik onena dira auzoko onak izateko. Hortxe dago gure erroka, beste alde batera ez begiratzean, geure buruari begiratzean.

Eta gazteei, Petronorren etorkizunaren oinarria direlako haiek. Bikaintasuna prestakuntzan, ondo egindako lana eta meritukrazia dira Petronor eraginkor baterako botika.

Amaitzeko, zuen onena ematen duzuen pertsona guztiak aintzatetsi nahi ditut. Etorkizuna orainetik eraikitzen ari izanaren itxaropena dakarkidate eta aita Casaldigliaren esaldi bat dakarkit horrek gogora: ezinegonaren aurrean eta ondo ezarritako eta energia-eraginkortasunean eta jasangarritasunean finkatutako etorkizuna aurrean izanik, **itxaropenaren** militanteak izan behar dugu.

Mila esker eta ikasi dezagun denok elkarrengandik.